



Dekretua: Etxebarriko Udala eta San Antonioko parrokiaren arteko hitzarmena

Decreto: Convenio entre el Ayuntamiento de Etxebarri y la Parroquia de San Antonio

Data / Fecha

2023ko abenduaren 28a /28 de diciembre de 2023

Alkatetza honek, egungo legediak onartutako ahalmenetaz baliatuz, eta bereziki 7/85 Legearen 21. artikulua, Tokiko Ogasunen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/04 legeko 185. eta 186. artikuluekin erlazionatuta; eta, beste aldetik, Bizkaiko Tokiko Entitateen Aurrekontuen 10/03 A.F.-aren 41. artikulua kontuan hartuz, Kultura Sailak aurkeztutako abenduaren 21eko data duen 207/2023 zenbakidun txostena aztertuz, bertan San Antonioko Parrokia eta Etxebarriko Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena onartzeko proposamena aurkeztzen duena, beraren edukia hurrengoia izanik:

Batzartutakoak

Alde batetik, 44.139.415 – T, NANA duen Iker López Comerón, IFK - 4.803.600-H, Etxebarriko Udaleko Alkate-Lehendakariak, Etxebarriko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa.

Bestalde, NAN. 14.886.241 - C duen José Alberto Vicente eta R- 4.800.267 - I IFZ duen eta Elizako Sarbidea, 4 helbidean egoitza duen San Antonioko Parrokiako ordezkari bezala.

Alderdi biek aitortu dute honako lankidetzaz-hitzarmena sinatzeko legeko gaitasun nahikoa dutela; eta azaroaren 17ko 38/2003 Aurrekontu Lege Orokorrarekin, eta Diru-laguntzak Emateko 2005eko martxoaren 17an, Udalak onartutako Ordenantzaren 20. artikuluekin bat etorritik, honakoa,

Esta Alcaldía, en uso de las facultades que le atribuye la legislación vigente, y en concreto el artículo 21 de la Ley 7/85, en relación con los artículos 185 y 186 de la Ley 2/04, del 5 de marzo, por la que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Haciendas Locales, y 41 de la N.F. 10/03, de presupuestos de las Entidades Locales de Bizkaia, visto el informe nº 207/2023 del área de cultura de fecha 21 de diciembre donde se adjunta la propuesta para la aceptación del Convenio de Colaboración entre la Parroquia de San Antonio y el Ayuntamiento de Etxebarri con el siguiente contenido:

Reunidos

De una parte, Iker López Comerón, con DNI. 44.139.415 - T, en calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Etxebarri, CIF 4.803.600-H asistido por , Secretaria Municipal de la Corporación.

De otra parte, D. José Alberto Vicente, DNI. 14.886.241 - C actuando en representación de la Parroquia de San Antonio, CIF R – 4.800.267 - I y domicilio en la calle Acceso a la Iglesia, 4 del municipio de Etxebarri (Bizkaia).

Ambas partes se reconocen con capacidad legal suficiente para otorgar el presente convenio de colaboración y amparados por la Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre, el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Etxebarri aprobado el 17 de marzo de 2005 y según el artículo 20 de la Ordenanza para la Concesión de Subvenciones aprobada por el Ayuntamiento el 17 de Marzo de 2005,

Adierazi dute

1.- Parrokiaren helburuetako bat da San Antonio parrokiako eraikina eta apaizetxea mantentzea, auzoko eraikin enblematikoa baita.

2.- Udalari dagokionez, eraikin hori Etxebarriko udalerriko ondasun soziokulturaltzat hartzen da.

Horiek horrela, alderdi biek, adostasunez, eta eurek duten ordezkaritza egikaritzuz, honako Lankidetza Hitzarmena izenpetzea adostu dute, honako hauen arabera

Baldintzak

1.- 2023. urterako lankidetza-hitzarmena sinatzea, parrokia-eraikinaren mantentze-gastuetarako diru-laguntza emateko. Konponketekin, instalazioen mantentze-lanekin eta abarrekin lotutako gastuak bakarrik hartuko dira kontuan, eta gastu orokorrek, inbertsioek eta bestelakoek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso.

2.- San Antonio parrokiaren ardura izango dira honako gai hauek:

1.- Diru-laguntzaren xedearekin lotutako zereginak kudeatu, koordinatu eta gauzatzea.

2.- Diru-laguntzaren xedeari dagozkion gastuak justifikatzea. Diru-laguntza justifikatzeko eta dagozkion fakturak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 31n amaituko da.

3.- Etxebarriko Udalaren ardura izango da finantza-zuzkidura bat esleitzea proiektua garatzeko, 2023ko udal-aurrekontuan diru-laguntza izendun bat baitago horretarako.

Manifiestan

1.- Que, entre los fines de la Parroquia se encuentra el mantenimiento del edificio y Casa Cural de la Parroquia de San Antonio, edificio emblemático del Barrio que toma su nombre.

2.- Que por parte del Ayuntamiento, se entiende ese edificio como un bien sociocultural del municipio de Etxebarri.

Por ello, ambas partes, de mutuo acuerdo, y en la representación que ostentan, conciertan suscribir el presente Convenio de Colaboración con sujeción a las siguientes

Estipulaciones

1.- Suscribir un convenio de colaboración para el año 2023 que tiene por objeto la subvención de gastos de mantenimiento del edificio parroquial. Únicamente serán tenidos en cuenta los gastos relativos a reparaciones, mantenimiento de instalaciones... no siendo susceptibles de subvención los gastos generales, inversiones y demás.

2.- Serán responsabilidad de la Parroquia San Antonio las siguientes cuestiones:

1.- Gestionar, coordinar y llevar a cabo las tareas vinculadas al objeto de la subvención.

2.- Justificar los gastos relativos al objeto de la subvención. El plazo para presentar la justificación de la subvención con las facturas pertinentes finalizará el 31 de enero de 2024.

3.- Será responsabilidad del Ayuntamiento de Etxebarri asignar una dotación financiera para el desarrollo del proyecto, para el que se dispone de una subvención nominativa en el presupuesto municipal 2023.



4.- Etxebarriko Udalak hitzarmen honen xedearen finantzaketan parte hartuko du, gehienez ere 3.500 €-ko zenbatekoarekin, 9200-48134 aurrekontu-partidan jasota.

5.- San Antonio parrokiaren izenean diharduten langileen eta Etxebarriko Udalaren artean ez da inolako lan-harremanik edo lotura juridikorik sortuko.

6.- Hitzarmen honek aurten izango du indarra.

7.- Etxebarriko Udalak eta San Antonio parrokiak adostasunez eta modurik egokienean zabalduko dituzte hitzarmen honen babesean egindako jarduerak. Nolanahi ere, zabalkunde eta dibulgazio-jardueretan, Etxebarriko Udalak jarduera horien finantzaketan parte hartzen duela nabarmenduko da beti.

8.- San Antonio parrokiak edozein betebeharrak betetzen ez badu, hitzarmena berrikusiko da, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoak baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko dira. Hala ere, edozein alderdik ezeztatu ahal izango du hitzarmena, eta gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste alderdiari.

9.- Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztirako, bai eta hura interpretatu, aldatu edo ebazteko ere, indarrean dagoen legerian ezarritakoa aplikatuko da, bereziki Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa.

Ebatzi dut

1.- Etxebarriko Udala eta San Antonioko parrokiaren arteko harremana adostea,

4.- El Ayuntamiento de Etxebarri participará en la financiación del objeto del presente convenio con la cantidad máxima de 3.500 € recogida en la partida presupuestaria 9200-48134.

5.- En ningún caso se derivará relación laboral o vinculación jurídica alguna entre el personal que actúe en nombre de la Parroquia de San Antonio y el Ayuntamiento de Etxebarri.

6.- El Convenio tendrá vigor durante el presente año.

7.- El Ayuntamiento de Etxebarri y la Parroquia San Antonio efectuarán, de mutuo acuerdo y de la manera más conveniente, la difusión y divulgación de las actividades amparadas por el presente convenio. En todo caso, en las actividades de difusión y divulgación se resaltarán siempre la participación del Ayuntamiento de Etxebarri en la financiación de las mismas.

8.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones por parte de la Parroquia San Antonio, supondrá la revisión del convenio y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de las cantidades otorgadas. No obstante, el convenio podrá ser cancelado por cualquiera de las partes, debiendo avisar a la otra con un mes mínimo de antelación.

9.- Para lo no previsto en el presente documento, así como para su interpretación, modificación o resolución, será de aplicación lo dispuesto en la legislación vigente, en particular, la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones.

Resuelvo

1.- Formalizar la relación del Ayuntamiento de Etxebarri con la Parroquia de San



erantsita doan lankidetzaz hitzarmenaren bidez, eta azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta Diru-laguntzak Emateko, 2005eko martxoaren 17an, Udalak onartutako Ordenantzaren 20. artikuluekin bat etorritik.

2.- San Antonioko Parrokiari 3.500,00 €-ko diru-laguntza ematea, indarrean dagoen udal aurrekontuko 9200-48134 partida zordunduz aipatutako proiektua aurrera eraman ahal izateko.

3.- Emandako diru-laguntza aldeztu aurretik ordaintzea agintzea, oinarrietan ezarritakoaren arabera, bermerik aurkeztu beharrik gabe.

4.- Zerbitzu ekonomikoei titularrak hurrengo entitatean zabalduen duen kontu zenbakian diru sarrera egin dezaten eskatu:

ES71 – 2095 – 0037 – 09 - 9018906095

5.- Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Udalaren Ekonomi Zerbitzuei eta Kultura Sailari.

6.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta adieraztea egintza hau behin betikoa dela administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezakeela dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 8. eta 46. artikuluen arabera. Hala ere, aukeran, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazten zaion berriazko ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango du ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 123, 124 eta 130.

Antonio la firma del convenio de colaboración adjunto, amparados por la Ley Gral. de Subvenciones 38/2003 del 17 de Noviembre y según el artículo 20 de la Ordenanza para la Concesión de Subvenciones aprobada por el Ayuntamiento el 17 de marzo de 2005.

2.- Conceder a la Parroquia de San Antonio, para llevar a cabo el proyecto mencionado, una subvención de 3.500,00 € con cargo a la partida presupuestaria 9200-48134 del vigente presupuesto municipal.

3.- Ordenar el pago anticipado de la subvención concedida de conformidad con lo establecido en las Bases, sin necesidad de presentación de garantía.

4.- Solicitar a los servicios económicos que realicen el ingreso en el nº de cuenta que el titular tiene abierto en la siguiente entidad:

ES71 – 2095 – 0037 – 09 - 9018906095

5.- Comunicar la presente resolución al interesado, Servicios Económicos y Área de Cultura Municipales.

6.- Notificar la presente resolución a la interesada, indicándole que contra este acto, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo que corresponda, a tenor de lo establecido en los arts. 8 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. No obstante, con carácter potestativo, y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes, que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación. Todo ello conforme a lo establecido en los arts. 123, 124 y 130 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las



UDALA
AYUNTAMIENTO

Kultura eta Kirol Saila
Área de Cultura y Deporte

artikuluetan oinarrituta eta bere eskubideak hobeto defendatzeko egoki iritzitako beste edozein ekintza edo errekurtsu aurkezteari kalterik eragin gabe.

Administraciones Públicas, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

Etxebarri,
2023ko abenduaren 28a / 28 de diciembre de 2023

Alkatea / Alcalde
Iker López



Idazkaria / Secretaria
Josune Urrutia